**DEKRETUA**

**DECRETO**

Lehenengoa.- Jakinarazpenak egiterakoan, ez badago jakiterik prozedura bateko interesdunak nor diren, edo jakinarazpena non egin behar den, edo jakinarazpena egiten saiatu arren huts egin bada, Estatuko Aldizkari Ofizialean iragarki bat argitaratuz egingo da jakinarazpena. Horixe ezartzen du Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, 44.artikuluan.

Era berean, aurrez eta aukerako moduan, administrazioek iragarki bat argitara dezakete autonomia-erkidegoko edo probintziako aldizkari ofizialean, interesdunak azken egoitza ezaguna izandako udalerriko udaletxeko ediktu-taulan edo dagokion enbaxadako, kontsuletxeko edo sail kontsularreko iragarki-taulan.

Bigarrena.- Zera dio Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak legearen arrazoiak azaltzerakoan: *"Azaroaren 26ko 30/1992 Legea jada ohartu zen teknologia berrien administrazio-harremanetan duten garrantziaz, baina legezko aitortza ekainaren 22ko 11/2007 Legeak eman zien, Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzkoak. Lege hark herritarrek administrazio publikoekin elektronikoki harremanetan jartzen duten eskubidea ezarri zuen, eta orobat administrazioen betebeharra zela eskubide hori baliatzeko behar diren bitarteko eta sistemez hornitzea. Hala ere, gaur egungo ingurumarian, izapidetze elektronikoa ezin da izan oraindik prozedurak kudeatzeko modu berezi bat; administrazioen ohiko jarduketa-modua izan behar du. Izan ere, paperik gabeko administrazio batek, funtzionamendu erabat elektronikoan oinarriturik, efikazia- eta efizientzia-printzipioak egokiago zerbitzatzeaz gain, kostuak aurrezten dizkie herritar eta enpresei, eta interesdunen bermeak indartu ere egiten ditu. Hain zuzen ere, dokumentazioa eta jarduketak artxibo*

Primero.- De conformidad con el art. 44 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, cuando los interesados en un procedimiento sean desconocidos, se ignore el lugar de la notificación o bien, intentada ésta, no se hubiese podido practicar, la notificación se hará por medio de un anuncio publicado en el Boletín Oficial del Estado.

Asimismo, previamente y con carácter facultativo, las Administraciones podrán publicar un anuncio en el boletín oficial de la Comunidad Autónoma o de la Provincia, en el tablón de edictos del Ayuntamiento del último domicilio del interesado o del Consulado o Sección Consular de la Embajada correspondiente.

Segundo.- En la exposición de motivos de la Ley Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas se establece que (...) *Si bien la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, ya fue consciente del impacto de las nuevas tecnologías en las relaciones administrativas, fue la Ley 11/2007, de 22 de junio, de acceso electrónico de los ciudadanos a los Servicios Públicos, la que les dio carta de naturaleza legal, al establecer el derecho de los ciudadanos a relacionarse electrónicamente con las Administraciones Públicas, así como la obligación de éstas de dotarse de los medios y sistemas necesarios para que ese derecho pudiera ejercerse. Sin embargo, en el entorno actual, la tramitación electrónica no puede ser todavía una forma especial de gestión de los procedimientos sino que debe constituir la actuación habitual de las Administraciones. Porque una Administración sin papel basada en un funcionamiento íntegramente electrónico no sólo sirve mejor a los principios de eficacia y eficiencia, al ahorrar costes a ciudadanos y*



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 11342622327743561264
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

*elektroniko batean izateak erraztu egiten du gardentasunerako betebeharra konplitzea, aukera ematen baitu interesdunei unean uneko informazio bizkorra eta eguneratua eskaintzeko".*

39/2015 Legeko 44.artikuluan zera ezartzen da: *"Administrazio publikoek balia ditzakete jakinarazpenak egiteko modu osagarri batzuk, gainerako hedabideen bitartez, baina horrez ez ditu salbuesten Estatuko Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratzeko betebeharretik".*

Hori guztia kontuan hartuta, eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak ematen didan eskumena baliatuz,

**ERABAKI DUT**

**LEHENENGOA**.- Durangoko Udalaren Iragarki-taula Elektronikoa sortzea.

Iragarki-taula fisikoan eta elektronikoan, bietan, argitaratuko dira udaleko iragarki-taulan argitaratu beharreko idatziak; hain zuzen, lege edo arau mailako xedapenetan edo ebazpen judizialetan iragarki-taulan argitaratu behar direla zehaztuta duten iragarkiak, ekitaldiak eta komunikazioak.

Iragarki-taula Elektronikoak bereizitako bi zati izango ditu:

a) Iragarkientzako Taula. Bertan egongo dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean zehaztutako idatziak, eta bestelako araudiek agindutakoak.

b) Durangoko Udaleko Ediktuen Taula. Bertan egongo dira Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legeak zehaztutako idatziak, eta baita bestelako araudiek agindutakoak ere.

**BIGARRENA**.- Herritarrek sarbide librea izango dute Iragarki-taula Elektronikora.

**HIRUGARRENA**.- Edukiak egiazkoak, zuzenak eta eskuragarriak izateko sistema eta

*empresas, sino que también refuerza las garantías de los interesados. En efecto, la constancia de documentos y actuaciones en un archivo electrónico facilita el cumplimiento de las obligaciones de transparencia, pues permite ofrecer información puntual, ágil y actualizada a los interesados*.

El art. 44 de la Ley 39/2015 establece que *las Administraciones Públicas podrán establecer otras formas de notificación complementarias a través de los restantes medios de difusión, que no excluirán la obligación de publicar el correspondiente anuncio en el «Boletín Oficial del Estado».*

En atención a lo expuesto y en virtud de las competencias que me confiere la Ley 7/1985, Reguladora de las Bases de Régimen Local,

**RESUELVO**

**PRIMERO**.- La creación del Tablón Electrónico del Ayuntamiento de Durango.

La publicación de anuncios, actos y comunicaciones que, por disposición legal o reglamentaria o resolución judicial, deban publicarse en el tablón de anuncios municipal, será realizada, transitoriamente, tanto en el Tablón físico como en el electrónico.

El Tablón Electrónico estará compuesto a su vez por dos partes diferenciadas:

a) El Tablón de Anuncios, para los fines regulados por la Ley 39/2015 de Procedimiento Administrativo Común y resto de normativa que resulte de aplicación.

b) El Tablón de Edictos del Ayuntamiento de Durango, en los términos de la Ley 7/1985, Reguladora de las Bases de Régimen Local, así como de aquella otra legislación que le sea de aplicación.

**SEGUNDO**.- El Tablón Electrónico de anuncios será de libre acceso por los ciudadanos.

**TERCERO**.- El Tablón Electrónico dispondrá de los sistemas y mecanismos que garanticen la



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 11342622327743561264
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

mekanismoak izango ditu Iragarki-taula Elektronikoak.

Udal administrazioko langileen sinadura elektroniko aurreratuarekin bermatuko da argitaratutako informazioaren egiazkotasuna eta zuzentasuna. Paperean dauden agiriak elektronikoekin konpultsatu edo erkatzeko, digitalizazio seguruko prozedura bat erabiliko da: erkatzea egin duen udal langileak bere sinadura elektronikoa jarriko dio agiri digitalari, edo, bestela, udalaren zigilu elektronikoa izango du.

autenticidad, la integridad y la disponibilidad de su contenido.

La autenticidad e integridad de la información publicada en el Tablón Electrónico se realizará mediante la firma electrónica avanzada reconocida del personal al servicio de la Administración municipal que queden encargados en cada caso. La conversión o compulsa de documentos en papel a documentos electrónicos se realizará a través de un procedimiento de digitalización seguro, que incluya bien la firma electrónica del personal que haya realizado la compulsa o bien el sello electrónico del Ayuntamiento.

**LAUGARRENA**.- Denbora-zigilu bidez zehaztuko da argitalpenak noiztik nora izango diren publiko (eguna eta ordua); horrela, argitaraldia idatziei eragiten dieten epealdietara egokituko da. Argitaratuta egon beharreko denbora igaro eta gero, Iragarki-taula Elektronikoan ikusgai egon den dokumentua berehala ezabatuko da, ahal bada era automatikoan, eta agiri hori artxibatu egingo da.

**CUARTO**.- A los efectos del cómputo de los plazos que afecten, se establecerá el mecanismo que garantice la constatación de la fecha y la hora de la publicación de los documentos mediante un sello electrónico de tiempo. Una vez transcurrido el plazo de exposición que le corresponda a cada caso, el documento expuesto en el Tablón Electrónico se eliminará inmediatamente, a ser posible de una forma automática, procediéndose a su archivo.

**BOSGARRENA**.- Iragarki-taula Elektronikoa eguneko 24 orduetan egongo da erabilgarri, urteko egun guztietan, udalaren webgunean (www.durango.eus). Uneren baten erabilgarri ez dela egongo aurreikusten bada, ahalik eta arinen emango da horren berri, eta baita kontsulta egiteko beste aukeren berri ere.

**QUINTO**.- El Tablón Electrónico de anuncios estará disponible las 24 horas del día, todos los días del año, a través de la Web Municipal www.durango.eus. En caso de que se prevea que no estuviera disponible en algún momento, se avisará con la máxima antelación que sea posible, tanto de esa circunstancia como de los medios alternativos disponibles para efectuar la consulta.

**SEIGARERNA**.- Baliabide informatikorik ez duten herritarrek ere eskura izan behar dute informazioa, eta, horregatik, Iragarki-taula Elektronikoa kontsultatzeko aukera egongo da Durangoko Udalaren egoitzetan egongo diren terminaletan eta sarbide elektronikoa edukiko duten beste gune batzuetan ere.

Iragarki-taula Elektronikoa erabilgarri ez badago, udaleko egoitzetan kontsultatu ahalko dira argitaratuta dauden iragarki, ediktu eta bestelako dokumentu guztiak. Era horretan, informazio horretarako sarbidea ziurtatu gura da.

**SEXTO**.- Para garantizar el acceso a la información a todos aquellos ciudadanos/as que no dispongan de medios informáticos, el Tablón Electrónico también podrá consultarse desde terminales instalados en la sede del Ayuntamiento de Durango y en otros puntos de acceso electrónico que se determinen.

En el supuesto de que el Tablón Electrónico no estuviera operativo, se podrán consultar en las sedes municipales todos los anuncios, edictos y resto de documentos que estén en periodo de exposición, asegurando también de este modo el acceso a los mismos.



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 11342622327743561264
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

Edonola ere, pertsona guztiek sarbidea izatea bermatuko da, eta kontsulta eraginkorrak egiteko beharrezko laguntza emango da, beti.

En cualquier caso, se garantizará el acceso a todas las personas y la ayuda necesaria para realizar una consulta efectiva.

**ZAZPIGARRENA**.- Herritarrek argitaratutako agiriren baten kopia inprimatua gura badute, udalari idatziz eskatu beharko diote. Kasu batzuetan, aurrez definitutako tasa bat ordaindu beharko da agiri jakin baten kopia eskuratzeko.

**SÉPTIMO**.- El ciudadano que desee una copia impresa de alguno de los documentos expuestos, deberá solicitarlo por escrito al Ayuntamiento, pudiéndose devengar si fuera el caso la tasa que en su momento estuviera estipulada.

**ZORTZIGARRENA**.- Iragarki-taula Elektronikoan sarbidea euskaraz eta gaztelaniaz egin ahalko da.

**OCTAVO**.- El Tablón Electrónico deberá posibilitar el acceso en euskera y en castellano.

**BEDERATZIGARRENA**.- Pertsona nagusiek edo entzumen zein ikusmen arazoak dituzten pertsonek erraz erabili ahal izango dute Iragarki-taula Elektronikoa. Helburu hori lortzeko, erabilerraztasuna lortzeko onarpen orokorra duten estandarretara egokituta egon behar da. Ildo horretan, eta erabilerraztasuna bermatze aldera, informaziora sarbidea izateko sistemak errege dekretu honetan daude zehaztuta: azaroaren 12ko 1494/2007 Errege Dekretuan, zeinaren bidez onartzen baita desgaitasuna duten pertsonek informazioaren gizartearekin eta gizarte komunikabideekin lotutako teknologia, produktu eta zerbitzuetara sarbidea izateko oinarrizko baldintzei buruzko araudian.

**NOVENO**.- El Tablón Electrónico deberá estar adaptado a los estándares generalmente admitidos para lograr su accesibilidad a las personas de edad avanzada o con discapacidad auditiva o visual, mediante la puesta a su disposición dentro del mismo de los correspondientes sistemas de acceso a la información definidos en el Real Decreto 1494/2007, de 12 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento sobre las condiciones básicas para el acceso de las personas con discapacidad a las tecnologías, productos y servicios relacionados con la sociedad de la información y medios de comunicación social.

**HAMARGARRENA**.- Herritarren Arreta Zerbitzuko langileek egingo dituzte Iragarki-taulako lan administratiboak. HAZeko beharginen esku egongo da paperezko dokumentuak elektronikoekin erkatzea, iragarki-taulan informazioa sartzea, epeak kontrolatzea, izapideak erakusketa-alditik kentzea, dagokien espedientean sartzea, eta antzerako bestelako atazak egitea.

**DÉCIMO**.- El Servicio de Atención a la Ciudadanía asumirá los servicios administrativos del Tablón Electrónico, incluyendo los trabajos relativos a la compulsa de documentos en papel a electrónico, la inserción, el control de plazos, la retirada, la diligencia de exposición, la incorporación al expediente de su razón y resto de tareas asociadas.

Alkate andreak agindu eta izenpetzen du, eta nik, Udaleko idazkari nagusia naizen honek, egiaztatu egiten dut. .

Lo manda y firma la Alcaldesa-Presidenta, de todo lo cual yo, Secretario General de la Corporación, doy fe.

Aitziber Irigoras Alberdi
Alkate Andrea · Alcaldesa

Ramon Sorarrain Tolosa
Idazkaria - Secretario



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 11342622327743561264
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**